

BILBON

Bertsorik ez da faltako behintzat

BILBO

Santiagoko plaza Euskal Herri osoko punta-puntako bertsolarien bilgune izango da Aste Nagusian. Bertan, eskola eta estilo ezberdinetako bertsolariak arituko dira eguerdi gaur hasi eta datorren igandera arte.

Bilboko jaiak Aste Nagusia izan direnetik, bertsolaritzak bere txokoa izan du. Denbora joan ahala, bertsolaritzak gero eta protagonismo handiagoa hartu du Aste Nagusian, hasieran saio bakar batzuk besterik ez baziren, egun egitarauaren ekitaldi nagusienetakoa bihurtu da. Santutxuko Bertso Eskola dugu aldaketa honen arduradun, eskolakideek bertso ekitaldien ardura hartu zuten eta geroztik, bertso saioak ez dira falta Aste Nagusian.

Santiagoko bertso-plazak aparteko bertsolariei egingo die abegi egun hauetan, baita egunero bertara hurbiltzen diren chundaka bertsozaleei ere. Bertsozale hauek ez dira nola halakoak, ikusentzule adituak eta bertso on bat bereizten dakitenak dira.

IZAERA PROPIOKO SAIOAK Aste Nagusiko bertso saio bakoitzak bere izaera berezia izango

du; ildo honetatik, antolatzaileek hiru irizpide erabili dituzte saioak banatzerakoan, bertsolariak herrialdeka, adinaren arabera eta saio libreak. Zortzi egunetik hirutan libreak arituko dira bertsolariak.

Bertsolari bizkaitarrak izango dira aste osoko bertso ekitaldi honi hasiera emango diotenak. 'Athletic Club' lemapean, eguerdiko ordubatetik aurrera lau bizkaitar taularatu dira, Ajuria, Txiplas, Jon Enbeita eta Abel Lopategi.

Bihar, bestalde, 'Osasuna', 'Alaves' eta 'Bayonne' taldeek neurtuko dituzte beren indarrak: nafarrak, arabarrak eta Iparraldekoak arituko dira Santiagon, hain zuzen ere, Argiñarena, Arozena, Gonzalez Durana, Abel Enbeita, Alkhat eta Xalbador.

Asteartean, 'Libre-libreak' arituko dira Mañukorta eta Mendizabal, biharamunean, abuztuak 21ean, 'Gazte gara gazte' lemapean oraindik zahartzeko urte asko beharko dituzten Iturriaga, Loidi, Maia eta Elorza taularatu dira. Ostegunetan betere txanda izango da: 'Oraindik bagara' izenburua duen saioan Azpillaga, Lazkao Txiki, Joxe Lizaso eta Xanpun arituko dira. Ostiralean, libreak arituko dira berri, baina oraingoan Lopategi eta Lizaso izango dira 'Geure erara'

izenburuean.

Larunbatean, gipuzkoarren txanda izango da eta 'Real Sociedad-a' izango da bertso kantari: oraingo honetan jokalaria, Lazkano, Loidisaletxe, Murua eta Telleria izango dira. Aste Nagusiko azken saioa abuztuaren 25ean izango da, eta azken txanda honetan 'Askatasun osoan' arituko dira Xabier Amuriza eta Jon Sarasua ●

Santiago Plazan egunero (13.00etan)

■ **Igandea 18.** Athletic Club: I. Ajuria, X. Arriaga 'Txiplas', J. Enbeita eta A. Lopategi

■ **Astelehena 19.** Osasuna, Alaves eta Bayonne: J.M. Argiñarena, M. Arozena, R. Gonzalez de Durana, A.Enbeita, E. Alkhat eta M. Xalbador

■ **Asteartea 20.** Libre libreak: Mañukorta eta M. Mendizabal.

■ **Asteazkena 21.** Gazte gara gazte: U. Iturriaga, Loidi, J. Maia eta I. Elorza.


za.

■ **Osteguna 22.** Oraindik bagara: J. Azpillaga, Lazkao-Txiki, Joxe Lizaso eta Xanpun.

■ **Ostirala 23.** Geure erara: J. Lopategi eta S. Lizaso.

■ **Larunbata 24.** Real Sociedad: I. Lazkano, Loidisaletxe, I. Murua eta M. Telleria.

■ **Igandea 25.** Askatasun osoan: X. Amuriza eta J. Sarasua

EL CORTE INGLES
BILBOKO JAIEKIN BAT

El Corte Inglés

ASTE NAGUSIA 91

GAURKO EGITARAUA



8,00etan Arenalean sokamuturra.

9,00etan Zezen Plazan bigantxak.

12,30etan Kioskoan Udal Bandareen kontzertua.

13,00etan Plaza Barrian Goloka taldea. Santiagoko Plazan bertsolariak: Athletic Club.

18,00etan Bigarren zezenketa.

19,00etan Arriagako Plazan Trastobilis txotxongiloak.

Plaza Barrian Pimpinellas taldea.

20,00etan Arenalean 'Tira ta floja' taldea. Santiagoko Plazan erromeria.

21,00etan Santiagon 'Baile de la Era'.

Kioskoan Akelarre taldea

Plaza Barrian 'Agerre' antzerki taldea.

22,00etan Arriagako Plazan Pimpinelle taldea.

23,00etan Ripan su festak: Pirotecnia Pla.

24,00etan Gas Plazan 'Malavevaje'.

Plaza Barrian Markeliñe taldea.

01,00etan Kioskoan Akelarre taldea.

04,00etan Plaza Barrian zinema: 'Los fabulosos Baker Boys'.

FESTETAKO ORDUTEGI BEREZIA

Astelehenetik Ostegunera: Irekita 9,30etik 19,30era.
Ostirala eta Larunbata: ITXITA